



**KOLDO ALDALUR  
HIRIGOIEN**  
KAZETARIA

## Hitzak

**H**itz batek, existitzen ez delako, ia dena esan dezake. Beste hitz batek, nekatutik, ez du ezer adierazten. Hitz ezegunak proposamen berria egin diezaguke. Eta badira hitz jolastiak ere.

Amazoniako basoan bizirauten duen tribu batean 'bakardadea' hitza ez dutela ezagutzen irakurri berri dut. Galdetuta, bertakoek erantzun omen dute ez dutela ulertzen nola egon zaitezkeen bakarrik naturaz inguraturik bazaude. Bakarrik ala hutsik? Horiek bi kontzeptu ezberdin dira, nahiz eta sarri elkarrekin dantzan dabilzan. Agian, Xabier Letek aipatzen zuen ezerezaren ezerezaz galdetu izan baliete ere, prest izango zuketen ikertzaille orojakileari matrailak gorritzeko moduko erantzunen bat. Egunsentiko esku izozturik ez, itxuraz, baso emankorrean.

Ukrainako inbasioak erakutsi digu ezer adierazten ez duten hitzak ere badirela: demokrazia, bakea, gatazka... duintasunik gabe, erabileraren erabileraz, hitz nekatuak dira. Kolorgetu egin dira, eta zentzurik gabe dabilta agintarien ahotan. Ezkutatzeko balio dute azaltzeko baino gehiago. Engainatua izan nahi duenari zuzenduak, pentsatu beharrik izan ez dezan.

Beste hitz batzuk probokatu egiten gaituzte. *Fukungisisa*, esate baterako. Zimbabweco Shona hizkuntzak berea duen hitza da. Depresioa adierazteko hitzik ez dute inguru hartan, eta 'gehiegi pentsatzea' adierazten duen kontzeptua erabil-

tzen dute. Borborrean dabilen kezka emariak lepagaineko errotrari pausatzeko betarik ematen ez dionean gertatzen denaz ari direla uste dut. Badakizue, gai bati bueltak eta bueltak ematen zaizkionean, beti hasierako tokian amaitzeko.

Horren harira, euskaraz 'tristealdia' erabili ohi dugula otu zait. Baikortasunera bultzatzen gaituen hitza: 'aldia' bada esan nahi baitu, behar den bezala artatuz gero, atzean uztea lor daitekeela ( Pentsatzen nian, bai, 'Ogrue' ez hintzela ados egongo!)

Hitz bakar batzuk propio gure bidean jarriak dirudite, beraiekin jolas egin dezagun. Hona hemen gertu topatu ditudan ale batzuk: 'prentsa' ideiak zukutzeko toleara ote da? Eta, 'prekaritatea' kalean eskean hasi aurreko garaia ote? Hain gutxitan erabiltzen den 'autokritika' egunkarietan zein kotxe erosi behar dugun argitzen digun orria, akaso? 'Presioa' eta 'prezioa' hitz bera izan daitezke azpeitiar baten ahotan. Baina presioa al da hilero etxera soldata eramateko ordaindu behar izaten dugun prezioa? Bukatzeko, 'arrakala'. Gizonezkoak al gara ba, lanpostu berean arituta, lan baldintza kaxkarragoetan aritzen garenak?

Ibili-ibili eginda, ez ote da kontua bakardadeari beldurrik ez dionak ez daukala gehiegi pentsatu beharrik? Hala izan ala ez, bizitzak gain hartzen digunean, hitzak alperrik dira. ●



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

## Hipotesiak

**G**urutzatzen ditudan lagunen arabera, bi filma heldu zaizkigu mihiak kilikatzerara, edo bat, edo bestea. Arrakasta handia bildu du Iparraldean Thomas Lacosteren *L'hypothèse démocratique* bi orduko dokumentalak. Borroka armatuaren garaiko lekuko entzutetsuenak ageri dira pantailan, justuki armarik gabeko ETA batek irudikatu euskal etorkizun moduko bat aipatzen. Interesgarria zinez, nahiz eta *etsaia* deitzen zenaren figura, konponbide proposamen horretatik aski kanpo geratzen den.

Hipotesia mesianiko berria eskaintzen dutela erraten didate, preseski, Iciar Bo-

llainen *Maixabel* obra ikusi duten adiskide apurrek. Badirudi honek ez duela halako hartzerik gure artean, min egiten diguten zauriak irekitzen balitu bezala. Arriskua hor al dago? Alta hori liteke bidea, hau da, eragin den dolorearen ukamenetik urruntzea, elekatzen hastea, hitzak ideologiaren konfort-tokitik eramango gaituela jakin arren.

Errepikatzen naiz, baina agian, gerorako balio duen balizko hipotesia demokratikoa biktimekiko enpatiarena da, ulermenarena, ahantziz behingoz, afera horretan guk ere kolpe latzak hartu ditugula. ●